

Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera % 2,3 hazi da 2024an

Urtean zehar, eraikuntzak % 0,1 egin du gora eta ingeniari-tza zibilak % 7,3


Eustaten datuen arabera, **2024. urte osoan**, Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduerak % 2,3ko igoera izan zuen urteko prezioetan, 2023. urtearekin alderatuta. Eraikuntzaren kasuan, urtean metatutako hazkundea % 0,1ekoa izan da, eta Ingeniaritza zibilean, berriz, urteko tasa % 7,3koa izan da. Higiezinaren sustapeneko jarduera alde batera utzita, eraikuntzaren urteko batez besteko hazkundea % 0,1ekoa izan da, Eraikuntza % 3,1 jaitsi delako 2024an, higiezinaren sustapena kontuan hartu gabe.

2024an eraikuntzaren sektorean jarduera gehitu egin zen Araban (% 2,3), Bizkaian (% 2,8) eta Gipuzkoan (% 1,5).

Sektore osoko langile okupatuen indizeak % 5,0ko beherakada izan du 2024an.

≡ Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturako indizea obra-motaren arabera

Urte arteko tasa. Egutegiko eraginak zuzenduta



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea (EKI)

2024. urteko laugarren hiruhilekoan, uneko prezioetako jarduera aurreko urteko hiruhileko berean ikusitakoa baino % 4,4 handiagoa izan da. Hiruhileko honetako prezio arrunten urte arteko igoera, egutegiaren ondorioak atera ondoren, Eraikuntzaren (% 3,9) eta Ingeniaritza zibilaren (% 5,7) portaera positiboagatik gertatu da.

Sektorearen hiruhileko honetako jarduera aurreko hiruhilekoarekin (2024ko hirugarren hiruhilekoarekin) alderatuz gero, Eraikuntzaren koiunturako indizea % 2,8 igo da termino nominaletan edo prezio arruntetan, dagozkion urtaro-ondorioak atera ondoren. Eraikuntzan jarduera % 3,4 gehitu da aurreko hiruhilekoaren aldean, eta Ingeniaritza zibilean % 1,2.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak. Uneko prezioak (p). 2024/IV

	Uneko prezioak		
	t/t-4	t/t-1	At/At-4
Indize orokorra Euskal AE	4,4	2,8	2,3
Eraikinak	3,9	3,4	0,1
Ingeniaritza zibila	5,7	1,2	7,3
Araba/Álava	5,6	2,8	2,3
Bizkaia	3,9	2,9	2,8
Gipuzkoa	4,9	2,8	1,5
Indize orokorra higiezinaren sustapenik gabe	1,0	1,4	0,1
Higiezinaren sustapenik gabeko eraikuntza	-1,2	1,4	-3,1
Langile okupatuaren indizea Euskal AE	-6,3	-0,8	-5,0

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urte arteko aldakuntza-tasa. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t/t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. Datu desestazionalizatuak

At/At4 Urte arteko aldakuntza-tasa metatutako aldiaren, urteko 1. hiruhilekotik behatutako azken hiruhilekora arte (At), aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean (At-4). Egutegiaren ondorioen datu zuzenduak

Data 2025eko Otsailaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Eraikuntzaren sektorea uneko prezioetara % 5,6 igo da Araban, % 4,9 Gipuzkoan eta % 3,9 Bizkaian. Aurreko hiruhilekoaren aldean, aldiz, Eraikuntzaren koiuntura-indizea % 2,9 igo da Bizkaian, eta % 2,8 Araban eta Gipuzkoan.

Eraikuntzaren sektorea, Higiezinaren sustapena kontuan hartu gabe, % 1,0 igo da 2023ko laugarren hiruhilekoaren aldean, eta % 1,4 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Bestalde, Eraikingintzaren azpisektoreak, behin Higiezinaren sustapenaren jarduera aterata, % 1,2 egin du atzera urte artean, eta % 1,4 hiruhileko artean.

Langile okupatuaren indizea, azkenik, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,8 jaitsi ondoren, 2024ko laugarren hiruhilekoan 2023ko hiruhileko berean ikusitakoa baino % 6,3 txikiagoa izan da.

Informazio-oharra

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % 91,0ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prensa-zerbitzua: \[servicioprensa@eustat.eus\]\(mailto:servicioprensa@eustat.eus\)](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62